



Bizkaiko Foru Aldundiak 3444/2015 Foru Agindu bidez onartu zuen HAPO baliogabetu egin du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak

Epaia foru agindua baliogabetu du, Lezama Bizirik elkarteak aurkeztutako salaketaren haritik. EAJ/PNV udal taldearen ustez, informatu eta EAEANKo epaiak jasotako zenbait kontzeptu argitu egin behar dira.

Lezama Bizirik elkarteak **hirigintza arauak baliogabetzeko eskatu zuen, ingurumena ez hondatzea eta desarrollismo irizpideak bezalako kontzeptuetan oinarrituz; hamaika puntu zehaztu zituen:** horietako lau muinekoak edo materialak dira, eta hirigintza eremuan zuzeneko eragina daukate, eta zazpi puntu formakoak dira, hau da, izapideak edota txostenak edo txosten zatiak faltatzeari buruzkoak dira.

Lehenengo multzotik honako hauei egiten zaie erreferentzia:

- hirigintza eredia
- etxebizitzak areagotzeko aurreikuspena
- aurreikusitako industria lurzorua areagotzea
- egoitza garapenean jasotako zenbait zonetan uholdeak izateko arriskua

Bada, **salaketako lau puntu horiek baztertu egin ditu EAEANK**, eta horrek 3444/2015 Foru Agindu bidez onartutako arauen zuzenketa babesten du.

Epaia forma akatsengatik baliogabetu da, ez muinagatik

Gainerako zazpi puntuei dagokienez, hiru baztertu egin dira, eta *forma akats* gisa ezagutzen diren lauak onartu dira. Epaiak puntu horiengatik erabat baliogabetu du foru agindua.

Lezama Bizirik elkartearen salaketak oinarritzat zituen hamaika puntuetatik auzitegiak lau bakarrik onartu ditu, eta horietatik batek ere ez dio erreferentziarik egiten muineko akatsei; aitzitik, puntu guztiak **forma akatsei** dagozkie, eta horrek babestu egiten du arauak ongi diseinatuta egotea eta zuzenak izatea industria eta hirigintza garapenaren zehaztasunari dagokienez.

Babes ofizialeko etxebizitzak edo etxebizitza tasatuak eraikitzeo aukerarik gabe

Horrek esan nahi du hogeit hamar urte baino gehiago igaro ondoren, Lezamak udalerria haztea arautuko duen araurik gabe jarraitzen duela, hau da, epai honekin herritarrek galtzen dute, zenbait alderditan; orain indarrean dauden arauak 1988koak dira, eta bertan ez da ageri babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeo aukera, eta horixe, hain zuzen ere, gizartearen eskaera handietako bat da. Orain baliogabetu den araudian etxebizitza tasatuen %30 aurreikusi zen (babestua).

Enplegua sortzeko aukerarik gabe

Bestalde, salatutako araudiak industria erabilerako lursailak arautzen zituen, alegia, enpresa berriek hartu ahal zituzten lursailak; enpresa horiek zuzeneko zein zeharkako enpleguak eskainiko lituzkete, eta, horrez gain, zergak ordainduko lituzkete udal ogasunean, Lezamako herritar guztientzako zerbitzuetan inbertsioak egin ahal izateko. HAPO baliogabetzeak udalerrri osoari eragingo dionaren bi adibide baino ez dira.

Inbertsioak egiteko aukerarik gabe, gazteek alde egingo dute Lezamatik

Bidenabar, araudi berria garatzeak gastu ekonomiko nabarmena ekarriko dio udalari, eta diru hori ezingo da herriko beste inbertsio batzuetara bideratu. Arauak prestatzeko 3 edo 4 urte beharko dira, eta, horren ondorioz, Lezamako garapena erabat geldiaraziko da, inguruko udalerriak hazten diren bitartean (arau eguneratuak dituzte denek). Bertan ezarritako enpresek eragindako diru-sarrera iturriak bereganatuko dituzte, baita gure gazteak ere, gurasoen etxetik alde egiteko babes ofizialeko etxebizitzak bilatuko baitituzte, inguruko herrietan finkatu eta familia osatzeko; beraien udalerritik kanpo egin beharko dute, eta haien seme-alabek ez dute Lezamako kale eta plazetan jolastuko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia Lezamako Udalaren webgunean dago argitaratuta, hemen: ZERBITZUAK/HIRIGINTZA/INFORMAZIOA, edo esteka honetan: <http://www.lezama.eus/es-ES/Servicios/Urbanismo/Paginas/default.aspx>.

